


# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

288n. zenbakia  
urrilla 2003



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



## **LIEBANA´KO TORIBIO DEUNA:**

- MONASTEGI OSPETSUA (VI GIZALDIAN)
- LIBURU APAINDUAK EDO "BEATOA"K:  
MARGAZKI ZORAGARRIAK
- APOKALIPSIS ETA SALMO-LIBURUAK  
GEIENAK

# EUSKALERRIAN EUSKERAZ

E U S K E R A Z A L E A K

## 2003-2004 IKASTURTEA

### OGEI TA AMASEI BIZKAIERAZ IRU MAILA ETA ALKARRIZKETA

**Egunak:** ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

**Orduak:** GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

**Ordaña:** 125 €

**Izena emoteko-tokia:** EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22 - BILBAO

**Asierea:** URRILLAREN 6AN

### 36º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

**Días:** LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

**Horas:** MAÑANA, TARDE Y NOCHE

**Curso completo:** 125 €

**Inscripciones:** EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - TELÉFONO 423 53 22 - BILBAO

**Comienzo:** 6 DE OCTUBRE

## OPARITXO'EN EGUNAK

Ni lagunakaz solasean, geienetan tentalari agertzen naz eta Euskerazaintzaren batzarra amaituta Olazar`tar Martin`eri esan neutson. ia noz egingo gendun ostera bat beti-berdiñeko bidetik urtetako.

Ez eban ezer esan, baiña sarri alkartzen garan lez egun baten, Kristo il eben kurutzearen zati bat, garrantzi aundikoa eta antziña eskuz idatzitako izki-xeakaz liburu zaar-ederrak ikustera joan bear gendula esan eban, Liebana`ra. Liburu onei "beatoak" deritxe.

Ez neban aitu gauza aundirik, baiña Kobadonga aipatu eban lez..., orrek beste atsegintasan bat emon eustan, mendi-kate orretan sekula be enintzelako egon.

Euskerazaintza`n Uztailla`ren 30`an egindako batzarra amaituta, Martin`ek: asmatutako oparixoen eguna ta orduak ipini bear doguz, berba egiteak bakarrik ez daualako balio. Eta Mungia`n, Dagonilla`ren 4`an gizeko bederatzietan urtetako eguna ta ordua ipini genduzan.

Mungia`n bederatzia laurden gutxiagotan egon nintzen eta Martin ta Paulin be prest.

Egun ederra agertu jakun iruroi asmakizun ederrak gogoratuta. Geien Paulin`eri, gurdira igon aurretik an egon zalako arpegia irripartsu buru-lepo kuskor dauala, eskuak lasterka igurditzen atsegingo goz-artu baten eta batera: "au bai opari eguna!!" esan da gurdira sartu giñan.

Santander`eko bidea artuta, ez gendun arazo aundi-rik euki eta gurdia gidatzea gogokoa egiten jatan.

Itsas ertzetik joanda edertasun guztian agertzen ziran kastro-Urdiales, Laredo, Santoña, Beranga, Solares, Santander eta mendi-itsasoak Unkera`raiño.

Santander`en apur-bat galduta ibili giñan, baiña ez gendun damurik euki, Santander alako egunagaz ikustea gure eguna edertu baiño ez ebalako egiten.

Unkera`n ezkerretara artuta, Panes, Ermida`tik bel- dugarrizko eta ederra dan batera mendi-lepo batetik ia iruntsita Deba-errekaren bazter bide estu-estutik joan giñan 24`kilometru`an Potes`en eguerdiko amabiak eta laurdenetan agertu arte.

Artez joan giñan Fuente De`an (Deba ibaia) telefe- rikoa dauan tokira geratu barik.

Martin eta Paulin`ek ikusita euki eben, baiña ni mirets-erazita geratu nintzan mendi-eder kate areik eta ainbat gurdi ta giza- seme ikusita.

Martin`ek teleferiko`en txartelak atarateko esan eustan, bera Paulin`en billa doian artean.

Txartel bakotzak 10 euro balio eban eta txartelaren goiko bastarrea ipinten eban 2.003`ko urte onetan, ni izan nintzela andik igaro eban 139.435`garren ikuslea.

Bereala deitu euskuen teleferikora igoteko, eta igoten joan giñanean, nik esango dautsuet bildurtia enazela eta edozein gauzak ez daustala beldurrik emoten, baiña gorantza joan giñanean beti mendiaren aurka joteko biotz-ikararekin beera begituta eztarrian estutasun bat igarri nebala bai.

Ikusgarriak ta ederrak dira egun garbi bategaz andik ikusten diran Europa`ko Mendi-zorrotzak, oraindiño gu egon giñen lekutik (Fuente De`ko ikustokian) goratxuago urtu-gabeko elur zatiak egon zirala, gagozan uda berotsu onetan.

Arrastiko ordubi ta erdiak ziran eta nire sabelaren asmoak agertzen asi jatazan. Martin`eri esan neutson ia zeozer artu gura ba-eban eta ezetza emon ondoren nik ogi-tarteko txiki bat ardu zuriagaz lagunduta artu neban.

Etxegintza sendoa eta ondo apaindutako babes-toki ta teleferikoaren gel-tokia da, neguan an egingo dauzan otzakaz beste gauzarik ez daualako balio, bai diruaren iturri galanta ondo apainduta eukiteko.

Etorkeran, Jateko berandu zala-ta, gorantza ikusi gendun ostal-etxe batera joan giñan. Goiko ostatuaren edaritegitik etxearen osteko bealdera bialduta. Ondo apaindutako lekua eta gerizpe ederrean bazkaldu gendun eta gure solaseko berbaldia, ango edertasunari ikust-arin bat eginda Euskadi`n Espainol ta Frantzesakaz daukagun Nortasunaren gora-beragoko arazoan ezarri gendun, azkenean adostasunezko erabagi batera elduta: "Batasuna`koak ainbeste estukuntza barik eta ETA`k izkilluak alboratuta benetako politika baten asten ba-dira Euskadi elburu-lez on-artuta Eusko Alderdi Jeltzale eta EA`gaz batera zuurtasunezko neurri aundi baten, gure NORTASUNA`ren arazoa irabazita dago" gure Erria`ren erabagia on artu bear dabelako. Ez bakarrik Espainia`n eta Frantzian, bai Europa ta Mundu osoan, ori dalako daukagun arazo bakarra NORTASUNEZKO MAILLAN gure lege-biltzarrean berba eta erabagiak artzeko iñorengo elkar-naazte edo menpetasun barik.

Torrelabegatik etorri giñan, eta Mungia`ra eldu giñanean Paulin`ek irrintzi batzuk bota ta gero, Martin`ek ZER`erako idaz-lan baten gaurko egunaren azalpena idatzi bear nebala esan eustan eta etxe barrura sartuta "LA LIÉBANA – PAIS ENCANTADO" liburu emon eustan.

Liburu au, ondo apaindutako liburua da: argazki ederrakaz irudituta, nai-ta ni, dakarren inguruko edes- tiagaz adostasunean egon ez.

Deba ibaia, Astur eta oraindiño daukazan Euskeraz- ko berba asko, Asturias`eko oiñarriak dira, Espainol- asmatzaille zaleak esaten dauana baiño, beste gauza eder baten oiñarrituta dagozelako.

Europa`ren oiñarriak jakiteko zeintzuk diran, ikertzai- lleak zeaztasunezko iker-sakonetan sartuta dagoz, eta balekita Espainol ikertzailleak egin daben lana Euskal- aztarnak naaztuta galdu daitezcan, danak batera eta argi- garbiko ikustokira igotea esnearen koipe-bitzak gora igoten dauan lez.

**ATUTXA`tar PAUL  
Zornotzan 2.003`an Dagonilla`ren 25`ean.**

---

---

# LEGE ZARRA (7):AUZIAK ETA ESKARIAK

---

---

**I legea:** Bizkaitarrik ez da epaituko Bizkai´tik kanpoan.

Lenengo esan eben: Bizkaitarrak ezin daitekezela euren etxeetatik atera eta jaun aundiaren kortera eroan edo Bizkai´ko epaikari nagusiagana eroan gora joteko asmoz izan ezik.

**II legea:** Berau dala-ta beste erabagi zana: Errege-eskutitza.

D<sup>a</sup> Juana erregeñeak, nire auzitegiko entzule guztiai eta Bizkai´ko nire epaikari nagusiari eta nire korrexidoreari auxe diñotset: nire aurrean eskatu daben lez, Konderriko bizi-lagunik Jaurerrik at iñoz be ez dala aterako gorago joteko asmoz ez ba´da.

**III legea:** Epaikari nagusiari adieraztea.

Balladolid´en, 1506n.urtean azaroaren ogeta zazpigarren egunean, nik, Eskobar´ko Frantzisko´k konderriko eskribau nagusi lez, aurreko agiria aurkeztu eutson erregeñaren eskutitza eta men egin eutson.

**IV legea:** Beroneri buruz agiria.

Ondoren Balladolid´eko urian 1507n. urteko azaroaren 29n. Egunean Alderete Bizkai´ko epaikari nagusiak Erregin aundiaren eskutitzak diñoana betetuko dauala agindu eban.

**V legea:** Korrexidorearen auzi-orduak.

Baita esan eben: Korrexidoreak dagoan lekua dagoala, auzi-aldia egin bear dauala, aste bakoitzean iru egunetan (asteartea, eguena ta zapatua) Jaia ba´da urrengo egunean. Egun orreitan Pazko egunetik San Migel egunera eguerdiko ordu bietan jesarriko da auzualdia egiteko eta bostak arte egon. San Migel egunetik Pazko egunera, barriz, eguerdiko ordu batetan jesarri eta laurak arte.

**VI legea:** Lurralde lauan ondasunak eta urietan zorrak dauzana.

Baita esan eben: Bizkaitar bat uri aundietan espetexeraturuten ba´dabe, eta an ondasunik euki ez, katigu dagoanak lurralde lauan zer ondasun daukan agertu dagiala eta ondasun ugariak ba´dira aske itzi dagiela eta gero ondasunak saldu.

**VII legea:** Auzira deiak zelan egin.

Baita esan eben: Bizkaitar batek beste bateri auzibidez zeozer eskatu nai ba´dautso, joan daitela korrexidoreagana edo foru-alkateagana eta agertu zergaitik nai dauan auzia, eta iru egunen barruan auzi-deia egin eta zorduna ez ba´letor, etxeokoi esan, eta dei agiria erakutsi.

Iñoz ez deitu egun beratan.

**VIII legea:** Iges egin dauana zelan salatu.

Baita: Iges egin dauana salatu dagiala artzekodunak eta salakuntza egiten ez ba´dau, auzi-deia utsa izan daitela, deitua izan ez ba´litz lez.

**IX legea:** Igeslariaren zigorra ta karta-azala.

Baita: Igeslaria salatua izan ba´da, eta epearen barruan etorri ez, lau marai ordaindu dagizala eta eska-leak karta-azala eskatu daikela eta epailleak sei egunen barruan, egun biko iru epetan emon dagiola. Eskaleak lan-saria ordainduko dautso.

**X legea:** Karta-azala zelan adierazo eta gero zelan jokatu.

Baita: Karta-azala olan atera ezkerro, eskaria egin dauanak erri-eskribauaren aurrean igeslariari adierazo bear dautso. Gero, agertu ez ba´da salakuntza egin bear dau eta igeslaria kondenatzea eskatu. Eta au egitea luzatzen ba´da, lekuko en eurrean eskatu.

**XI legea:** Igeslaria agertu ezkerro, zelan jarraitu.

Baita: Erruduna olan kondenatu ezkerro, epaia berari adierazo, edo aren etxean eta bost egunen barruan epaikariagana ba´dator eta gorajoten ba´dau, zigorra milla maraikoa ba´da, karta-azala berari adierazo.

**XII legea:** Karta-azala dala-ta, erruduna agertu ezkerro, zer egin.

Baita: Erruduna karta-azalean esaneko epe-barman agertzen ba´da, eta eralketa kitatu, entzun dakiola, eta agertuko ez ba´litz, agertu arte itxarotea eskalearen esku dago.

**XIII legea:** Bizkai´ko epaikari guztiak arau oneik bete dagiezala.

Baita: Korrexidoreak naiz foru-alkateak ondasunak eta abereak dirala-ta jardunbide au zeatz bete dagiela.

**XIV legea:** Igeslariaren zigorra ta eralketak

Baita: Agertu ez dan alderdiak, agertu danak igeslaria salatu ezkerro, amabi maraiko zigorra ezarriko jako eta egun orretako jana ta alogera.

**XV legea:** Epai-sariak dirala-ta.

Baita: Prestameruak eta merinuak esandako eskaria egitearen orde araudiak diñoana bakarrik artu dagiala ez geiagorik, gaiñera eguneko jana ta alogora.

# GAURKO BARREGARRITASUNAK

Errusiatarrak antziñatik, kaizargo menperatzaile´en denboratik, baiña batez be Staliñ´en deboratan, “iru U´en gaitz-zantzuak” azurretaraiño sartuta euki ebezan: “UGADAT, UGODIL, UTSELET”. Auen itzultasuna izan leike: “USAINKATU edo USMATU, KOIPEKE-RIETAN adi ibili edo AO-ZURIKERIETAN eta BIZIRIK GELDITU”.

Orren esangurea bakarrik argi azaltzen dauana: Errusia´ko gizartean, leen kaizargoaren menpeko eta gero komunismu´ren baltzako lagun-arte, guztiz ustelduta edo zatiegituta egon zala, euren oiturazko arremanak guztiz barregarrituta geratu ziralako, eta orregaitik iñork konturatu-bako unetxo baten bea-jo edo erroiztu ziran.

Gaur, or dabiz borroka latzetan, berezitasunezkoak zentzunezko bidera eroan naian, eta menperatzaileak, eskuetan izkilluen indarrak daukiezelako, lengo menperatasunera eroangura.

Gaur, zuriak eta gorriak, danok dakigu berezko bidea zentzunez ta edertasun guztian beteta jokatzeko ba-dogu bide bakarra dala JAINKOA´rena dalako, baiña ata guzti be gure ordezkarietarako dakargun diruen jaurritasuna edo eraendua aldetzeak beldurra edo izu-ikara emoten dausku, aldaketaren era barriak beldurrak emoten dauskulako gure on-biziaren babesziurtasunerako.

Orregaz poztuten direnak, menperatzaileak dira, ekintza orrek gure gizartea zatitu edo banakatu egiten dualako, eurak garailari agertuz.

Etorkizunezko bide ori da benetan apurto bear doguna, bizi onen zentzua ez dalako xautzailletasunerako bakarrik, oituraren arloan daukaguzan beste gauza aundien artean, ordezkarietarako ardurak berez eta berezko LEGE´tik agertzen jakuzenak dira leen bete bear doguzan baldintzak, baktxari berea emonda, baktxa beren ardurazko ekintzan al izan daiten pakez eta lotsagizun aundiz ordezkarietaren arloa zaintzeko.

Eta Nortasunezko Erri-berezi ezberdiñak menperatu naian izaten ba-dira okerrago.

PP eta PSOE´k euren ikarabidearen itzarmenakin zelako arrazoiak erabili dabek EGUNKARIA aldizkaria eta AuB´ren alderdia abertzalea, bata berriaren lanbidetik baztartzeko eta bestea Euskal auteskundeetatik desagertu daiten, eurak autarkian Abertzaleak baiño geiago izateko?

Churchil´ek, Staliñeri bialdu eutson eskutitz baten be alan argitzen da, berezko edo jatorrizko erri ta erri-tarrai “jendekata´ren” (masas) antza oso-baten aipatzen dabekelako. Auek be Erritarrak arduratzen ziran? ala..... euren arteko jokoaz ?.

Irak´era zelako egiakaz joan dira..... arrolioa (petro-leo) lapurtzera?

Gaur egunean olako oinkapetasunezko jaurkintzak eroan ezker arazoak errez agertzen dira eta epotxak, karen edo ezaziak (enanos) ugari azten jakiez: “Alper-tasunaren edo indarrik-ezaren zenterian edo aukeran agertzen diralako arazoak”.

Auek, gauza guztiaren ordezk-arduratan kontuan ez egoteagaitik: batzuk ardura-gabetasunean egoten diralako; beste batzuk gertu-gabeen berri asko diralako; beste batzutan berriak ainbaten aaztuta geratu diralako; beti jaurkintzaren lekutik urrun dagozelako eta geienetan nik agintzen dodalako; aitortu-ezin diran irabazkiak ostontzeko.

Gauza guzti auen bidez gero ta ugariago agertzen dira gaitzasanak, eta gaur ikusten dogun lez gero-ta latzgarriaren arriskuan, ardurak lekuz-kanpoko jokabidean dabizelako.

Ori da EUROPA onetan Ingelesak, Italiarrak eta Espainarrak EE-UU babesean gure daben DEMOKRAZIA´ren jokua?

Gaurko egunetan dabilzan demokraziaren arrazoizko jokoak negargarriak dira ikusten dogunagaitik, erdi-ugarte onetan pakezko oreka lortzeko jaiotzan gizartekeria edo sozialismua menperatzaillaren aurka, bat eginda dabizelako, berezko edo berezitasunezko erri ta erri-tarrai arduraren bideak zarratzeko. Gaurko Sozialismuak jakingo dau....., zertarako jaiotzan ziran?

## GAURKO DENBORAK:

Gaur daukaguzan laterri menperatzaileak, goian aipatutako iru U´en gaitz-zantzuak (síntomas patológicos), gure Europa´ko erri ezberdiñetan jendartean ostera be ezarri gure dabekala esan leike, eurak danon ardurak bideratzeko: “USAINKATU edo USMATU; KOIPEKERIETAN ADI IBILI edo AO-ZURIKERIETAN; eta BIZIRIK GELDITU.

Baiña gaur, dana birrindu egiten daben atomo-leer-kaiak ezin diralako erabili, balekíte azkeneko ezaldi onek: “BIZIRIK-GELDITU” beste aldaketa bat eukíte euren menperatzaile jokabideak indartzeko eta Errien jendartean pakean ta orekan adostasuntzeko bear diran arrazoizko ekintzak apurtzeko jokoak asmatu: “ERAMAN-EKARRI´koak edo NUN-ZEBARRIKO´ak” erabili eta sartu, lotsagabeko aundienak sasi-jainkotasunean ondo-bizi daitezcan euren zapalkuntzak babesteko.

Ori da gaur, argi, bai garbi be ikusten dogulako agertzen dana, adibidez: “Espaina ʼko epaitegi nagusiak laterri ʼko jaurkintzagaz daukien gezurrezko indar guztian, EUSKAL-LEGE BILTZARRA ʼri eta JAURLARITZA ʼri egiten dautsozan legez-kanpoko ekintzakin euren aurrean belauneko agertu daitezcan, mende-gabeko edo biurrikeriak leporatuta”.

Eta PP-PSOE nai-ta etsaiak izanda be, Espainol jaurgo-zaletasunean (konstituzioan) ezarrita, naaztetasunezko bideak zabaldu egin dabezelako, zelan galdubideko oiartzun aundian, euren artean (Madril ʼen) lapurketak aurrera eroaten alegintzen dira, alderdi batetik bestera, PSOE irabazlearen ordezkari bien judaskeriko jokoaren bitartez PP ʼri Madril-erkidegoko agintea emoteko. Onei...., autatzailleak arduratzen dautse?

Baiña gaur oinpetuko eta galbideko ekintza orreik ez dira errezak aurrera eroatea, batera, morroi lez beargiñaren laguntza bear dabelako, beti euren agindutara gauza guztiak egin daitezcan, eta ekintza orretan ikaragarizko akatza agertzen da, azken baten ordezkari arduratan, euren ezar-lekuetan bakardade utzean agertzen diralako danon ardurak euren menpean arteagaitik.

Joko onetan barregarria dana, azkeneko auteskundetan biak autarki gitxiena eukinda be, biok bat eginda, berezko erritarrai autesle geiago eukiteagaitik, Espainol iraspen izenean Euskaldunai erasoan jaurkintzako bideak zarratzea. Gaiñera biak jaurkintzaren agintea gura izanda, bata besteari esan “ZELAN ITXIKO DAUSIEN JAURKINTZAREN BURU IZATEA (ARABA ʼn) AUTARKIAN IRUGARRENAK BA DIRA?

ETA LEENEGOA DANARI?

Ori ez da DEMOKRAZIA, ori MENPERATZAILTASUNA da!!

PP ʼko alderdia berez menperatzaillea ba da....., Sozialismuak nun galdu dauz beren Euskal-alderdikidearen NORTASUNAK eta auek bete egiten dabezan berezitasunezko jaurkintzak erri bat osotzen dabelako izkuntzan, erlijioan, oituran eta jakitean bat eginda dagozelako NORTASUNAK ?

Ori ez da Demokrazia, ori Fazismo utza da, Fazismo ʼko lapur ameskeritan dabizelako, ez dakit JAINKOA ʼk eurei emonda zelako aginduaren aitzakiaz.

Orregaitik dira errez ikustekoak eta barregarriak egiten dabizen zikinkeriak, goitik beerako menpera-

tzaille aginpe baten arduraren arlo guztiak, ezin eta ez diralako gai ordezkatzeko.

Mundu ʼko jendarte guztia Demokrazi-on baten egarri da, eta batez be Europakoa, bizitzeko gaiztasunak, gero ta geiagoko erreztasuna eskatzen dabelako, eta ekintza ori zekula be ez da lortuko, ordezkariaren ardurak ez ba-dira banatzen ordezkari guztien artean.

Euskal Errian pozik egon bear geunke, apurka apurka eta demokraziak eskatzen dauan argitasunezko neurrian PP eta Sozialismu alderdietan dagozan Euskal-Semeak, etxeko arduratara asi dirala erantsten, gure jaurkintzan daukaguzan gizon/emakume eta Alderdi Abertzaleai ezker, euren ardurazko ordezkarietan, edertasunez jokatzcan dabelako zentzuzko zeaztasunean, argitasunaren eragikortasunerako.

Orretarako ez da bear izkillurik ez ilketarik, amurru guztiak baztartuta, jakintasunaren abertzale-zentzuzko lan bikaiña baizik. Eta laster konturatuko gara, gure Errira atzeritik etorri diran gizon/emakumeak gure beste demokraziaren egarri dirala, gure errian aobeteazaltzen dalako, nai-ta eurak NORTASUNEZ ʼko jakin-arloan atzeratuak ibili, menperatzailleak arrazoa naazte-borrazte aunditan erabili gure dabelako euren lapurketetan garailari geratzeko. Baiña kontuan euki, gurean dagozan atzeritarrak askatasunaren egarri dirala, itz orren barneko izaera: jakintasuna, arduradun izatea, maitasuna eta demokrazian osotuta dagoelako. Eta gure Erri ta Erritarrai zeozeren maitasunezko atsen-gintasunean eukiten ba-dauzkue, gure demokrazisko askatasunaren amets ta egarria ikusten dagoelako da. On-zentzuzko gizon/emakumeai izugarrizko deia egiten dautsona.

Orregaitik gaurko jokoak borroka baztartuta, jakin eta ardurazko bidetik izan bear dira: “menperatzailleari arrazoa naaztuteko aukerak dezagertu egiten jakoze-lako leenen, eta euren aurka egiaren aurrean gu askoz geiago garalako. Eurak beti joango dira guzur aundi baten gaiñean, gezurrezko zaldiketean iraun egiten dabelako.

Euskaldunak, “bide ori” ELBURU “lez benetan ta eruki-gabe artzen ba-dogu, EUSKADI iñungo zalantza barik EUROPAN IZAR AUNDIENA IZANGO DOGU”.

**ATUTXA ʼtar PAUL  
ZORNOTZA ʼn 2.003 ʼan BAGILLA ʼren 18 ʼan**



**ALDIZKARI ONEK  
BIZKAI ʼKO FORU-ALDUNDIAREN  
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU**

# IRUÑA - ALDAPAKO SAN FERMIN

Iruñeko toki goienean kokaturik dago Aldapako San Fermin basiliza au. Tenpluaren sagarapena iriko patroari eskeinia dago Santu-imajina Iruñeko San Fermin txikiko jaien patroia. Aldare erdian dago irudia, alde batean Iruña eta bertzean Nafarroako armariak dituela.

Berez, elizaren eraikuntzak neoklasiko estiloa du, txikia, txukuna eta eroso da. Alde zaarrek nabarria auzoan kokaturik dago, au irian auzoetatik antzinatasun geiengo duena. Eraikuntza onen ondoan zegoen Nafarroako erregen jauregia, orain artxibategirako berritzen ari direna. Toki orretatik iriko bistak oso politak ikusten dira. Klaretiar kongregazioko kideek ongi zaintzen dute. Baselizan, igandero, goizeko amaika terdian euskaldunok elkarbide bat dugu, euskal meza ematen da.

On Fermin apez jakintsuak ori eta geiago ere egiten du, beti irakasten du zerbait; otoitzak, oroimena, kanta eta esaera bitxiak. Orietako asko eta asko aazturik daude erritarren artean, bainan arek, leenago oroitza eta kanta ziren kantuak ongi dakizki, berriro ikasi bearko genituzkeenak, gure euskal kulturaren parte andi bat direlako eta mendetan zear nortasuna egin dutenak.

Eta elizatik ateratzerakoan, beroa ematen zaio elkar, giroa erri txiki batekoa bezalaxekoa.

Ala suertatu da aurtengo eguberriko meza ondolik ere, eta nabarmena izan da, nola zegoen eliza jendeez leporaino beterik.

Eguberriko euskal kantu bereziak aditzerakoan, eta aien artean aurtxo multzo bat ikustean poza andia ematen zuen.

Dudarik gabe, aurtengo eguberri egun au oso berezia izan dela, euskal meza asi zeneko denbora aietakoa bezalakoa.

Ilusioa ikusten zen guraso eta aurren aurpegietan. Olako ekitaldia mereziko luke suspertzea, indartzea eta jakitera ematea ere.

Bear bada, Iruñean izanen da jendea oraindik meza au non eta noiz ematen den ez dakiena.

Onetaz, ona litzateke euskal guraso eta gazteen artean berri au zabaltzea eta edatzea, aurrak aal den geiengo izkuntza bizia, jatorrizkoa eta pertsona diferenteei euskara mintzatua aditu dezaten.

**Xole Erbiti**

## AZKUE TA BAROJA

Azkue'k bein baten esan eutson Karo-Baroja, Pio Baroja'ren lobeari, osaba Pio Euskalerritik kanpora bialdu bear litzakela. Zergatik ete zan? Bear ba da gure Azkue aundiak fede-arloari begiratzen eutson eta bere esaldi au ez da onartzekoa.

Eldu zan Pio Baroja'ren belarrietara Azkue'ren esaldi garratz ori eta, jakiña, elebarrigille eta euskaldun ospetsua asarre bizitzan jarri zan Azkue'ren aurka.

Baiña ez eben ordukoz alkar ezagutu ez ikusi.

Alkar ikusteko lekua ta aldia ez ziran egokiak izan, Bilbao'n eta gudaldian. Eta ara! alkar maite izatera eldu ziran!

Julio Caro Baroja'k geroago be izan ebazan artu emonak Azkue'gaz, baiña ez ain onak. Bein baten Euskaltzaindiaren etxean alkartu ziran Urkijo'tar Julio'k Caro Baroja ara eroan ebalako, itzaldi bat egiteko.

## ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:**

**EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**



SALMOAK

Salmo berriak kantatzeko Doinuak!

(1) *San Juan*

Javn-goi-ko Ai-ta mai-te zai-tu-gu  
 ze-ru lu-rren E-gi-lla Jain-ko  
 Se-me-a, mai-te zai-tu-gu guz-ti-  
 on Sa-ba-tzai-lla - a Javn Es-pi-ri-tu San-tu-a  
 ze-ra a-lai-ta-sun e-mai-lla - a gu-re  
 a-ni-man Se-na-rra ze-ra po-za  
 sor-tzen lan-gi-lla - a

**21N. SALMOA: JOSEK EZAGUTZEN DU MARIA AURDUN**

1

Ondorenean Birjiña jua zan  
 Joseri lagundutzero,  
 bostgarren illa aurdun zeguan  
 eldu zan ezagutzero.  
 Min aundi onek Josen biotza  
 iritxi zan zulatzera:  
 "Birjin-bizitza aginduta au  
 nola dator jaiotzera?"

2

Jose santua samintasunez  
 biurtu zan Jaunarena,  
 esana zuan: "Jaungoiko Jauna,  
 dana ikusten zaudena,

zure eskutik artuta daukat  
 emaztea daukatena.  
 Badakit zure ofentsa ez da,  
 baiña aurdun dagoena.

3

Zuk gobernatu nere biotza  
 eta entendimentua,  
 argi eidazu ezagutzeko  
 zer dan zure nai santua.  
 Misterion bat ez bada emen  
 neretzat da ezkutua.  
 Ez dit esaten zer gertatu dan  
 nago oso penatua".

4

Jose santuak negar-saioak  
 samin egiten zituan,

ikusten zuan gauza orrekin  
 berak parterik etzuan.  
 Olako andrearriz iltzeko  
 legeak agintzen zuan,  
 maite zion da beraren kontra  
 itz bat esan nai etzuan.

5

Ama Birjiñak ikusten zuan  
 supritzen Jose santua,  
 baiña etzeukan ordenarik  
 esateko gertatua.  
 Kariñuakin ematen zion  
 jana ta edatekua,  
 baiña San Jose penaz auldu  
 zan bastante gaixotua.

6

Josek Maria maitea zuan  
 bizi zan erdi gaixorik,  
 gauza asko bururutzen zituan  
 ta ezer ezin baterik.  
 Asmatu zuan: "Onena det ni  
 bizi izatea bakarrik.  
 Ezin ikusi det nik etxean  
 nere ez dan semerik!"

7

Ama Birjiñak ezaguturik  
 Joserren pentsamentua,  
 Jaunari gogoz eskatu zion  
 pozteko Jose santua:  
 zuk emandako senarra nai  
 izatea serbitua,  
 ez nadin izan Semearekin  
 bakarrikan gelditua".

8

Jaunak erantzun: "Nere  
 eta maitea zerana,  
 azkartuko naiz ta izango  
 Jose portuko dedana.  
 Aingeruakin esango diot  
 zurekin gertatu dana,  
 oraindik esan leiozuke zuk  
 Joseri ez dakiana".



**22N. SALMOA: JOSERI ITZ  
EGIN DIO AINGERUAK**

1

Gau artan Josek pensatu zuan  
bakardadera juatea,  
diru parte bat Jerusalemgo  
eleizari ematea.  
Bere andrea etzedin izan  
fama txarrakin betea,  
il arte bertan biziko zala  
Jainkoarekin batua.

2

Malkoz otoitz egin ondorean  
Jose loak artu zuan,  
aldatutzeko erroparekin  
pardela egin orduan.  
Santu Gabriel Jaunak biraldu  
zion Joseri orduan:  
Dabid erregen seme zala  
Josek oroitzen al zuan.

3

“Jose, etzazu bildurrik izan  
emaztea lagatzeko.  
Jaun Espiritu Santuan lana  
izan du Aurra sortzeko.  
Argitaratuko du Seme bat  
bere erria salbatzeko,  
eskatzen dizut Seme orreri  
Jesus izena jartzeko”

4

Onela dana gertatu zan au  
zetorrena etortzeko,  
igarle santu Isaiasek  
idatzia betetzeko:  
“Ara birjiña, seme bat sortu  
eta argitaratzeko,  
Jainkoa gudan esan nai duan  
Emanuel izendatzeko”

5

Ondorenean esnaratu zan  
Jose ametsetatikan,  
ta egin zuan Jaunaren naia  
entzun bezela pozikan.  
Etzuan laga bere emaztea  
aurdun argitugatikan,  
barkazioa eskatu zion  
malkoz auspez jarririkan.

6

Jose santuak esana zion  
bere andre Mariari:  
“Barkatu arte ez naiz jeikiko

nazu zure serbitzari”  
Baiñan Mariak umil nai zuan  
serbitzea senarrari,  
Joseri esan zion Mariak  
“zuk barkatu andreaki”.

7

Mariak Jose jeiki arita  
bera belaunikatuta,  
esana zion: “Ni bear nazu  
zuk ipiñi barkatuta.  
Nai nizun esan gauza au baiña  
neukan nigan ixilduta,  
orretarako Jaunaren naia  
oraindik etzan elduta”

8

Ama Birjiñan itzakian Jose  
gelditu zan alaitua,  
beregana zeukan Jainkoarekin  
espirituz indartua.  
Ta esan zion: “Andren artean  
zu zera bedeinkatua,  
erri danetan gizaldietan  
Jainkoak aukeratua”

**23N. SALMOA: MARIA ETA  
JOSEREN BIZITZA GARBIA**

1

Ama Birjiñak entzun ondoren  
Jainkoa abestu zuan,  
Isabeleri esan zizkanak  
berriz kontatu zituan.  
Otoitz-extasis batek artuta  
aidean argiz zeguan,  
Josek ikusi, ezaguta  
Jauna adoratu zuan.

2

Grazi aundi bat izan zan Jose  
penakin ez urtutzea.  
Orain grazia aundiago da  
pozarekin ez iltzea.  
Isabel ta Joan bezela Jose  
Jaunak nai zuan jartzea,  
Ama Birjiñan bitartez grazi  
aundiagoak artzea.

3

Beren etxea zan lengo eran  
bizitza bakarrekua,  
barruan zitun iru lekuak,  
bat Joseren lan-lekua.  
Bigarrena zan Josek otoitzak  
eta lo egitekua

irugarrena Ama Birjiñan  
otoitz ta lotarakua.

4

Biek lanean jarraitzen zuen  
pobreak ziran moduan,  
Ama Birjiñak arizko telak  
eskuz egiten zituan.  
Aita San Josek arotz-lan ura  
ugari izaten zuan;  
ordain limosna, “Au balioa”  
iñork entzuten etzuan.

5

Birjiñagandik ikasi zuan  
Josek lana ez kobratzen,  
ematen zien limosnarekin  
ixilik ziran pasatzen.  
Ta batzuetan jateko ere  
etzitzaien ellegatzen,  
Jaunari umil au eskatuta  
jateko zuen izaten.

6

Ama Birjiñak ikusten zuan  
aurreratzen jaiotzeko,  
senar Joseri eskatu zion  
baimena preparatzeko.  
“Linozko telak eginda dago  
oial-fajak egiteko,  
eta lanazko oial fiñak  
billatu aurra jartzeko”

7

Gero San Josek esku lanaren  
ordain zuana artuta,  
billatu zitun oial-lan fiñak  
emazteak eskatuta.  
Bi tela ziran zeuden eunak  
artu zitun pagatuta;  
bat zan zuria eta bestea  
kolore pardo deituta.

8

Ama Birjiñak tela auekin  
oialak egin zituan,  
eta bazeukan beste tela bat  
berak egiña eskuan.  
Kamixak eta maindiretxua  
emendik egin onduan,  
sobratu zana Jerusalemgo  
eleizara eraman zuan.

**Aldalur'tar Justiñe  
Lekaine Klaratarra  
(Gasteiz'en)**

# ZER DABIL OR?

-Bilbao'ko Batzar Nagusietarako(Congresos) jauregia, munduko onena ei da.

-Europa'ko 500 txakur etorri dira Bilbao'ra sari-billa.

-Oreja'k diño EAJ ez dala alderdi demokratikoa:Zer dabil or?

-Iturgaitz asi da Bilbao'ko Frantziskotarra ta gotzaiñari agintzen:Zer dabil or?

-Jabier Rojo sozialistek diño Mayor Oreja'k ez daua la sinisten askotasuna.

-Euskaldunen "Gizarte-Neurkiña"(soziometroak) neuri oneik ezarten dautsez politikarriai:

Ibarretxe'ri = 5'2

Otegi'ri..... 2'2

Aznar'eri.....2'0

Mayor O.ri....2'0

Iturgaitz'eri...1'8

%55 askatasun osoaren alde,zelan dan.

-%29 dira tabakoa erreten daben euskaldunak.

-Aznar'ek amar urtean autonomi guztiak kentzea nai dau (Pujol)

-Kortzega ugarteak antxiñatik nai dau askatasuna, baiña... gaur gatx.

-Milla gazte euskaldunek diardue Irugarren Munduan. Orretarako aukeratuak dira eta jaurlaritzak 120.000 euro emoten dauz .

-Euskaldunak diru geiago aurreratzen dogu españatarak baiño.

-Ibarretxe'k "Confesbac"en laguntza onartzen dau Aznar'egaz alkarrizketa lortzeko.Barreda aurka eta Patxi Lopez alde.

-Laterri-arteko Euskal-Etxeak bat egin dabe , euren nortasun-txartela dauke eta Aberri-Eguna be guztiak batera ospatzea nai dabe: Andorra, Arjentina, Brasil, Kanada, Kolonbia, Txile, Salvador, España, USA, Frantze, Italia, Mexiko, Peru, Puerto Rico, Bretainia Aundia, Santo Domingo, Uruguai, Benezuela. Gasteiz'en egin dabe batzarra.

-Tony Blair'en larrialdia: Irak'en aurka guda egiteko,guzurrak.

-Begoña Errazti'ren ustez,urtebete barru gogorkeria alboratzeko urratsak.

-Bizkaia'n 29.000 berebil-gidari 70 urtetik gorakoak.

-Tour'ean,Baiona-inguruan euskerea be erabilliko dabe.

-Anboto mendian mendigoizale bat galdu da.

-Madalena egunean Bermeo'ko alkateak Izaro'n teillea uretara:Jabetasuna.

-Sadan'en seme bi il dira Irak'en tiroketa baten.

-Aznar'ek Ibarretxe'ren agiriari utsa: ZERO.

-Gudari españatarak Irak'era: Ikurra "Santiago matamoros" Endakeririk? (Nor racista?)

Abando-Ibarra'ko Torre Aundia Aldundiak ez dau egingo. Beste batzuk?

-Filipiñetan 300 gudari matxino egun osoan.

-Jatabe'ko abadea erritik kanpora doa.

-Euskaldunak urte geiago bizi gara:76 urte gizonak,84 andrak.

-% 13 sendik bizilekua bear dabe euskalerrian.

-Liberia laterri txiroa Afrika'n, antxiñako morroi liberratu ondoangoak dira. Barruko guda dauke eta USA'ren laguntza eskatzen dabe.

-Bero aundia Bizkaia'n,gerizpean 42°. (2003-08-10)

Bizilekuak ez dira karutu, apur bat merketu iru illebetean.

Beroak Bizkaia'n bi il dauz.

Naparroa'ko agintariak "Principe de Viana" erakundeari ez dautsoe lagunduko.

250 lantegik ordaintzen dautsoe ETA'ri iraulketa-zergea.

Amar erri Bizkaia'n ur barik dagoz, eta beroa aurrera doa.

Legorte aundia daukagu baiña edateko ura bai jorrialera arte.

Zabaldu da Gernika'ko albo-bidea,ain bearrezkoa.

New York,USA'ren iparraldean eta Kanada'n amar ordu argi-indar barik.

Idi Amin diktadore izana il da ,gitxienez 500.000 il ebazan.

Euskalerrian %20 estu eltzen dira illearen azkenera.

Joane Somarriba, emekume txirrindularri euskalduna,irugarrenez nagusi Tour'ean.

ONU'ren ordezkoa il dabe Irak'en beste 16'gaz batera.

Casalarreina'n istripu baten bost il dira.

Athletik'eri 31 milloi euro TV'k edo Sogekable'k iru urterako.

Ezkertarrak kaleratzeak bake-bakean egin dabez.

Aita Juan Antonio Flores'ek Amazonas ibaiaren inguruan 23 urte daroaz misiolari. Sakana'ko naparra da, euskalduna, euskalzalea eta autodeterminazioaren aldekoa agertzen da.

Euskalerririk K2'ko Europa'k lako bi biztanle ditu.

Bonbay'n 46 il dira lerkai batzuk estanda egin da.Islandarren guda santua da.

PP'k epaitegira eroan nai dauz izu-zaletzat dagozen txosnetako arduradunak.

Franco-Iraspena'ri diru-laguntza emon dautso gobernuak:26.000 euro.

**Olazar'tar Martin'ek batuak**

# JUAN LUIS GOIKOETXEA ARRIETA

(IZKUNTZALARI MAIXU /DR.)

Edozein irakaslerentzat bizitzan amets eder bat da dotore-maillara eltzea, eta askoz amesgariagoa ori izkuntzarloan eta euskera-arloan lortzen danean.

Ori izan zan nire ametsa eta orretarako bear zan ikasturtea be egin neban, baiña tesis edo Maisu-lan nagusia egin bear nebanean, orretarako asita neukan maixu-lan txikiko abosgintza-arloa jorratuteko ametsa nebanean, nire agintari ziranak beste bide bat erakutsi eusten.

Gure Juan Luis eldu da mailla orretara eta bejoako nire zorion-agurra.

“Iker” arloko liburuen artean 13<sup>a</sup> da Juan Luis'en maixulana dakarren liburu mardula, 282 orrialde daukazana, eta Euskaltzaindia da liburuaren jabea.

Maixu-lanaren zuzendari Jon Kortazar adiskidea dogu eta epaimaikoak gizon ospetsu eta euskaltzale aundi oneik: Jean Aritschelar, Iñaki Gaminde, Gotzon Garate, Beñat Oyharçabal eta Adolfo Arejita. Oneik lanari ezarri eutsen neurria “cum laude” izan zan. Dana Euskalerriko Ikastetxe Nagusiaren barruan. Zoriona!

Liburua argitaratzeko laguntzailleak Bizkai'ko Foru-Aldundia, bbk eta Mendebalde Kultur-Alkartea izan dira. Bilbao'n argitaratu da liburua aurten, 2003n. urte onetan.

Nik uste neban liburu au edo lan eder au bizkaieraz idatziko ebal gure Juan Luis'ek, baiña oker nengoan: “Dakigunetik ez dakigunera” esaldia artu dau ikur lez eta idazlea, orain asko dakian lez, batura be eldu da, orrelan ez da geratzen “ez dakian” arlo aundirik.

Dana dala, gauzatxu batzuk aztertze gogoia euki arren, esaterako gure erriak “ze” erabilten dauan lekuan “ezen” onartzea edo erderazko “sobre” euskeratzeko “gaiñean” artzea (gaia zein dan esateko danean) Azkue'ren “Zeren gaiñean berba egin dau abadeak-pulpituaren gaiñean, alde batera itzita, eta erdel-itzak ain errez eta ugari sar-

tzea, ez noa ezelako azterketarik egiten. Liburutik itzez iz artuta, zatitxu bat idatziko dot emen (169 orrialdetik):

“Tesirako hartu dugun ikusmolde konstruktibistak zein parte hartze pedagogikoak edo jardun edukatiboa ikaslearen premia berezietara eta testuingura egokitzearen printzipioak, curriculum irekirako eredu hautatzera garamatazate. Horrekin adierazi gure duguna da, eskolako curriculumak zelangoak izan behar duen ulertze ikusmolde bi badirela: bata, bere aplikazioa ahal denik gehien bateratu eta zehaztu gure duena eta bestea, aplikatuko duen irakasleari inizatiba zabala uzten diona. Bestela esanik, lehen, praktikan curriculum eta programazioa identifikatzen dituen eta bigarrena curriculum programaziorako tresna moduan ulertzen duena”

Liburua izkuntzalaritzan aurreratua da eta itaunketetan ondo oiñarritua.

Izkuntzalari zar eta barri asko ezagutzen dauz idazleak eta euren irakatsiakaz euskerearen gaurko arazoak argitzen dauz. Diglosia-arloan ikuspegi oso zabala dauka, ama-izkuntzatik asi, azpieuskalkiakaz jarraitu, euskalki apaindura eldu eta batuan amaitzen dan ikuspegia.

Danaren gaiñetik, gure idazlea irakasle dala agiri da, orregaitik da liburua ain egokiro eratu.

Olako lan sakon eta zabalak oso egokiak dira gure euskera, izkuntza lez, dagokion maillan ezarteko ta agertzeko eta beronen egoera ugari sua erakusteko eta etorkizunerako bide batzuk marraztuta izteko.

Labayru'k bere bidean, Mendebalde'k bere lanean, Bizkai'ko Euskal Idazle taldeak eta Ikastolak, onein artean Ibaizabal argitaletxea daroan Lauaxeta'k eta guk, Euskerazaintzakoak, geure aletxua dakargula, guztion artean lan aundia egin geinke eta egiten dogu Bizkai'ko euskerearen alde, guztion artean mai-biribil antzeko bat osotzen dogula.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

## LOPE DE VEGA'REN BERTSOA EUSKERAZ

Lope de Vega'k “Los ramilletes de Madrid” izena daroan antzerkian lau bertso-lerro dakaz euskeraz, eta eskertzekoa da, baiña izkuntza ez dakianak artzen dauzan okerrak asko izaten dira eta ori jazoten jako Lope ospetsuari be.

Ona emen lerroak datozen lez:

Zure vegui ederro,  
En el astana,  
Cativaturic nave,  
Librea ninzona.

Ipiñi daiguzan lerro oneik ulertzeko eraz:

Zure begi ederrak  
Ene lastana  
Cativaturik nave  
Librea ninzana.

Onelan erderatu eban Lope'k:

Cara y ojos hermosos,  
Amada mia  
Me tienen cautivo  
Siendo libre.

Naikoa ondo itzulpena, baiña nondik atera ete dabe “cara”?

## EUSKALERRI'RA ARTOA NOZ ETA NOK?

Artoak garrantzi aundia izan dau gure bizitzan: Gogoratu taloa, artolabakoa, drungulua, abereentzat kaxako uruna edo oilloentzat artagaroa.

Eta garrantzi aundia izan eban gure soloak aberatsago biurtzeko eta gure ikuspegiak aldatzeko be.

Baiña gure edestian ez da beti izan artoa emen, Ameriketatik etorria da, eta lenago erderaz “mijo” eritxan arta-txikia baiño ez egoan gure artean.

Larramendi'k Koreografia deritxon bere liburuan diño, 1750n. urte-inguruan, artoa Ameriketatik etorria dala eta Perkaistegi'tar Gontzal emanitarra izan zala ekarlea eta gero zabaldu zala Euskalerrin osora. Baiña ez diño gizon ori nozkoa dan, eta ezin izan da argitu zein urtetan erein zan artoa lenengoz.

Arazo bi orreik argitzeko, naikoa litzake bietatik bat argitzea.

Iruña'ko gotzaiña zan Sandobal'ek (1560-1621) idatzi eban V Karlos'en bizitzan, 1521n. urtean Gipuzkoa'ko erri batzutan eztabaida aundiak izan zirala eta Donosti-inguruko erri batzuk uri onetara urreratu eta artotzak ebago ebezala. Orduan 1600n. urtean artotzak egozala ba-dakigu. Larramendi baiño gizaldi bat eta erdi lenagoko barria da ori.

Ara zer diñon Iturriza gure edeslariak: gizaldi bi ta erdi dirala artoa daukagula eta ori diño XVIII gizaldiaren azkenetan. Gizaldi bi ta erdi kendu ezker 1550n. urtera goaz.

Perkaiztegi ekarlea dan ezker, XVI gizaldiaren lenengo urteetan izan bear ekarte, 1521n. urtean artasoloak zabalduta egoteko.

# LEGAZPI

Legazpi eta Gurrutxategi´ko Mikel, Pilipiña ugarteak eskuratu ebazan euskalduna eskuratzailerik azkenengoa ta gizatierna dala esaten da.

1564n. urtean asten da bere ospea, urteetan naikoa aurreratuta egoala, Pilipiñetako ekiñaldi au berari leporatu utsoenean.

Zumarraga´n jaioa dogu 1503n. urte inguruan bere aita be kapitaiia zala. 1528n. urtean Mexiko´n daukagu. Ogeta amabost urte igaro ziran Pilipiñetara joan orduko eta urte orreitan zer egin eban ez dakigu larregi. Bai Zumarraga´ko Frai Juan´en aldian inkisidore izan zala eta ardura asko izan zirala beretzat Mexiko´n.

Urdeneta´ren eskaria izan zan Legazpi´ri Filipina ugarteak eskuratzeko ardurea emotea eta ekiñaldi au beteteko arau zeatzak eta ugariak emon ziran.

Lau itxas-ontzi gertatu ebazan, bi aundiak eta beste bi txikiak. Ez ziran lar ondo gertatu eta artu ebazan janariak be ez ziran lar onak. Or ikusten da bitartekoen ustelkeria sartu dala euren artera.

300 gizon inguru ziran guztiz eta onein artean asko euskaldunak.

1564n. urteko azillaren 21n eguneko goizaldean urten ziran eta egun batzuk itxasoan igaro-ondoren, eta lurretik 100 leguara egozanean eztabaidea sortu zan Legazpi´ren eta Urdeneta´ren artean zein bide artu ebazteko, baiña biak ziran zentzundunak eta arazoa konpondu zan. 9n. egunean itxas-ontzi batek iges egin eutsen.

Urterillaren 9n. egunean jabetu ziran lenengo ugarteaz, Meyit antza dagoanez. Urrengo egunetan beste ugarte batzuk, landaratsuak, ikusi ebazan, onein artean bat zan Guan eta emen asi eban Legazpi´k Pilipiñak eskuratzea. Legazpi´k guztiai emon eutsen agindua izan zan inditarrak ondo artzeko, naizta eurak aurka jarri.

Ugarerik ugarte artzen eban jabetza. Ez zan bear gudaketa aundirik tagaloen aurka, Legazpi esku-zabala zalako. Aldi barri bat asi zan ugarte areitan.

Ugarte guztietan jokabide bardiña artzen eban Legazpi´k: Kai-leku on bat aukeratu, ango inditarrak artu-emon onak asi, ugartearen jabetza artu, janariak batu,, ugarte-barrua ta ertzak ikertu, eta toki batzutan bizilekua jarri.

Maiatzaren 8n. egunean asi ziran lenengo uriaren zirriborroa egiten eta an bizi izaten asi ziran adiskide lez agertu jakezan inditarrak.

Legazpi´k ardurak banatu egiten dautsez kapitaiia eta euren aolkuak be entzun eta onartu egiten ebazan. Iñoz ez ziran ondo alkar ulertzen urre-egarri aundia egoalako. Eta aginpidea sendo agertu eta batzuk epaitu-bearra be etorten zan.

Urteak aurrera joakoz Legazpi´ri eta il baiño zazpi urte lenago asten da eskuratzen eta ebanjelizatze-lana amaitzen. Bere jarraitzaileak ez eban ulertzen jokabide eroapentsua eta Mexiko´tik etorren laguntza urria. Orre-gaitik batzuk asi ziran euren kontura ugarteetatik ibillal-diak egiten, batzuk Piarres Plum lez iparraldekoak eta beste batzuk españatarrak, esaterako Juan Mari Carpintero. 1565n. urterako Legazpi´ren aurka matxiñada bat gertatu eban baiña egin baiño lenago salatua izan zan eta egilleak epaituak. Sei illebete geroago barriro beste matxiñada bat, Legazpi´ren lagun zan Juan Nuñez de Carrion´ek eratua. Legazpi´k au be zapaldu eban.

Baiña beste matxiñada aundi bat sortu eban Pedro Martin Perikon piloto zala eta laguntzaile Lope Martín igeslaria. Onak bildurra eutsen Legazpi´ri igeslaria zalako eta Aranguren euskalduna lagun ebala euskaldun guztiak alboratu ebazan´olako naziñoagaz egiteko lana ez dalako au. Azkenean Legazpi´k irabazi eban eta zuzentasuna egin. Euren arteko bat Zaldibar´ko Juan eskribaua zan.

Matxiñada oneik alde batetik azpiratu bear izan ebazan baiña ez zan izan errezagoa Portugal´darren aurkako gudaketea.

Pilipiñak eskuratzeko lana amaitzeko 1569n. urtean Cebu ondo zainduta itzi eban eta Pinay´ra joan zan eta burruka batzuk izan arren erriak ondo artu eban. Masdate ugarte eskuratu eban eta Mindoro´ra eldu eta emendik Luzon eskuratzera joan ziran, baiña Txina´tarrak izan ebazan aurka eta Manila izango dan Kabite´ra eldu ziran. 1570n. urtean eldu zan Ugarte oneik II Felipe´ren koroi-pean sartzeko agindua eta Legazpi´rentzat Jauralaria izateko agiria. Herrera´k bialdu ebazan Manila eratzeko planoak. Lekaide agustindarrak asi ziran Barri Ona zabaltzen.

Daña amaituta ikusi baiño lentxuago il zan Legazpi gaisoak jota eta beretar bat aurka jarrita. Txiro il zan baiña ospetsu, beste asko lez.

**OLAZAR´tar Martin´ek**


## EUSKERAZALEAK

### EUSKAL ASTEA: 2003-11-24´tik 28´ra

- 24.- Astelena: Bertsolaritza: Bertso papelak: Legarreta´tar Asier´ek.
- 25.- Martitzena: Euskaleriaren buru-jabetza: Atutxa´tar Paul´ek (I).
- 26.- Eguastena: Abizenak: Olazar´tar Martin´ek.
- 27.- Eguena: Euskerearen Agiri Nagusia: Latxaga´k.
- 28.- Barikua: Euskalerraren Buru Jabetza (II) Ibarretxe´ren esondapena: Atutxa´tar Paul´ek.

## BER-JAIOTZA

Puntu-erdiko arku eukan eta erromanikua eritxogun tankerabik gotikora igaro giñan eta erpindun arku eta apaingarri ugariak dituan tankerea be igaro dogu eta orain barriro goaz puntu-erdidun arkura ta sabaira, apaingarriak urriago dirala. Dana da barria baiña etxegintzan arrigarriena kupulea da. Arrigarria eta arriskuga-



**Florentzia'ko gotzain-eleizearen kupulea. Ber-jaiotzaren ezaugarri bat kupulea da, eusteko gatxa.**

rria ormai eusteko gaiztasun bereiziak ditualako. Dana dala, Erroma'ko Kepa Deunaren eleizan daukagu arro-arro eta gero Ameriketako Kapitolioan be bai. Iruditegi (Retablo)´ak, aundikeri bakoak dira: Santua serio, age eba-giak, capitel apaindu bakoak.

Erromanikutik ber-jaiotzara, naizta biak izan klasiku tankerakoak, alde aundia dago: Norkien eta abereen bizitasuna batez be eta bizitasun orregaz batera etorriko da oituren usteltzea, eta orren adibide lez or daukagu VI Ale-


xander Aita Santua. Irudien bilioztasuna be nabarnena izango da.

Aldakuntza au ez da bat-batean sortzen, amabostgarren gizaldian edo, Italia´n esaten dan lez, "quattrocento"an asita dator. Erdi-aroa amaitzen da eta moderno-aroa asi. Len Jainkoa zan danaren ardatza eta gizakiak itzaltasuna edo bildurra eutsoen baiña orain Jainkoa kendu urrezko jarleku orretatik eta gizona jartzen da dañaren ardatz lez.

Oraindik aurrera norki bakoitxak dauko garrantzia. Ori egoan kristiñauen fedearen oiñarri-oiñarrian, baiña estalduta. Eta bakar oneik alkartzeko errege aundiak agertuko dira gaiñean.

Italia´n eta Flandes´en agertu zan lenen eragin au eta beste leku askotan ez dau larregi erakutsi bizitasun ori.

Italia´n aldi onetan erri aundiak eta sendi ospetsuak agertzen dira: Florentzia´n Medizitarrak, Nápoles Aragoi´ko V Alfonsoz, Milan Viskonti ta Sforza´tarrak eta Jenoba beraganduta, Benezia be berandu sartzen da eta inoren l a g u n t z a barik, Ferrara D'Este´gaz, Mantua




**Migel Angel'en Dabid**

Gonzaga sendiagaz.... baiña danen ardatza Erroma da eta emen Aita Santu jakitunak emoten dabe indarra ertilaririk onenak ekarteko: V Nikolas, II Pio, IV Sisto, VI Alejandro, Medizitarrak, II Julio, X Leon...

España´n eta Frantzia´n gudaketa gogorrak dabiltz aldi onetan: Frantzia´n VIII Karlos eta XII Luis eta España´n Fernando Katolikua eta I Karlos.



**Leonardo Da Vinci´ren "Azken apartaia"**



Leonardo Da Vinci-ren "La Gioconda" margazki guztien artean ederrenetariokoa.

Harrera'k egin ebazan lan ederrak Eskorial'en eta Salamanca'k ikastetxe nagusian.

Alemania alkatu barik egoan, Jauntxuen menpean. eta ez zan egoera ona eder-lanetara sartzeko.

Inglaterra'ra berandu eldu zan eragin aundi au.


Aldi onetan jakintza-arloan gauza asko esan daitezke. Ona emen batzuk: Ikastetxe nagusiak ugaritu egiten dira: Sorbona, Lobaina, Basilea... eta uri bakoi-txean sortzen dira banakako jakitunak: Descartes, Galileo...

Elertian sortzaille dirala dirudi Petrarka ta Bocaccio Italian, erri--izkuntzari indarra emoten dautsoela. Edertian irudigille- eta etxegin aundiak dagoz, Donatello ta Burneleshki esaterako, Florentzian Makiabelo daukagu bere liburu maltzurra dan "El Principe" gaz eta Leonardo Da

Vinci jakituri-mota guztiak beragaz zituana eta eder-lak egiten punterengoa.

Baiña aldakuntza guzti onek egiteko bearrezkoa zan laguntzak etorri ziran aurretik, batez irarkolea edo inpretea ta papela.

## Olazar'tar Martin



Jainko Adan egiten, Migel Angelena.



## IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKARAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearke dabe eta idazkerea, EUSKERAZAITZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira.
- Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKARAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.<sup>a</sup> eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterri-lean, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren.
- Sariak bost izango dira:
  - 1.<sup>a</sup> 300,50 euro.
  - 2.<sup>a</sup> 240,40 euro.
  - 3.<sup>a</sup> 180,30 euro.
  - 4.<sup>a</sup> 120,20 euro.
  - 5.<sup>a</sup> 60,10 euro.
- Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea abenduaren azkenera arte luzatzen da.

**EUSKARAZALEAK**

# OTO ETA POTOTO

## GALDU DUZU ARIMA

Aldi artan Oto pertza saltzen ari zan eta jo du ipar-aldera. Mota guztietako pertzak saltzen ebazan. Batez be, pertza oriak, sukaldeko lautzetik zintzilik imintzeko pertzak. Azoketan ibiltzen zan txarri-zale ezagun bateri saldu eutzon pertza eder bat. Txarrizaleak ez eukan paltrikeran dirurik eta, txarriak saltzean ordainko eutzola pertza.

Ordizia'ko azokan topatu dau Oto'k txarrizalea eta ordañak eskatu deutzoz; bañan, ipar-aldekoak zorra ukatu:

- Nik pertza ordaindu neuzun.
- Zuk? Noiz?
- Aurreko aretan: pertza erosi nebanian.
- Orduan ez zeukazun paltrikeran dirurik!
- Beti eramaten dodaz, diruak soñean...

Ez-ta-baida ez zan sekulan amaitzen eta besterik gabe, eraman du Oto'k txerrizalea epaitegira. Auzia erabakitzekeo testigurik ezean, onela galdetzen deuzo juezak txarrizaleari:

- Jainkoaren aurrean egia esango duzu?
- Bai, jauna.
- Esan ba: ordaindu duzu pertza Oto jaunari?
- Bai, jauna.

Orrenbestez bidaldu ebazan juezak biok kalera. Kalean doiazela, Oto'k iparraldeko berbetan:

- Galdu duzu anima.
- Baita zeuk be pertza.

## ZENBAT JAINKO

Arbiloratan Oto, berriz be, txarteletara. Pazkozkoa egiteko, txartela bea; txartela atarateko Abadearengana joan bear, Dotriña-galderei erantzuteko...

- Ara, Oto, galdera oso erraza egingo deutzut. Galdera oneri erantzuten ume txikienak be badaki.
- Bai, ote...?
- Bai, bai. Ona galdera: Zenbat Jainko dira?

Oto'k ez zuen aspaldian Dotriñarik ikusi, be... Galdera-erantzunak guztiak ebiltzen bere buruan naastuta...

- Ara, Jauna... Aita, Semea eta Espiritu Santua, orra iru... Iru pertsonekin, ara sei... eta, Jainko bakarra, orra zazpi...

Abadearen etxetik irtetean, ara nun datorren Pototo bera be txarteletara.

- Zer, Pototo, txarteletan?
- Asmo orretan gatoz.
- Ez dago, ba, abadea umore ederrean...!
- Zer, ba?
- Ez dakidala zenbat Jainko diran?
- Zenbat izango dira, ba? Bat bakarra.
- Bai, bai, txo, esan ori... Bat bakarra dala esan da emango dik txartela iri...! Neri ez deust emon zazpi dirala esan da, ta...

## DOSKABALLOSA

Baserrira bidea berritu berri dogu. Motor sidekarduna zaartu eta, Pototo beti dabil aurrera begira, eta automobilla erostea erabaki dau.

Zer erosiko eta Pugeot Doscaballosa erosi dau. Ura omen da baserrirako egokia eta merkea. Indar asko be ez dau, bañan...

Tresna berriak erakustea eta probatzea beti izan ei da atsegingarri.

- Oto, goizan Sollube aldera bi zaldi auk probatzera. Urduri nago ori egin arte.

- Goizan, goizan...!

Oto gizon atsegiña da: iñoren borondatea betetzeko beti prest...

Badoiaz bidean.

Automobillak kulunka apurren bat egiten dau; bañan bi zaldikoa bakarrik izateko, zer nai dozu geiago?

Bi zaldiak arnas-estuka doiaz aldatz-goran; bai ba, Sollube'k aldapatxoa be dauko ta...

Atzetik Mercedes indartsu bat. Orra tximistak artuta, aurrera!

Ori ikusita, Oto, Doscaballosen atea eraginda, irteten asi da... Bai muturreko ederra artun be kamiño-baztarren kontra...!

Bere automobilla geldituta, badoia laisterka, Oto'ren aldamenera, laguntza eskeintzen:

- Bañan, Oto, zer egin dok eure burua orrela automobilletik botatzeko.

- Neure burua bota...? Mercedesen martxa ikusita, automobilletik jetsitzen asi naz, geldirik egoalakoan...

## AMABOSGARREN BIZITZA

Oto ta Pototok, etxegintzan jardun ondoren, beurentzako etxe-bizitza bat gorde dabe amabosgarren pixuan.

Etenik gabeko berba-jarioa eukan egun artan Pototo'k. Alan-bear eta aszensoreak indarrrik ez egun aretan.

Oñez igo bear.

Amabosgarren bizitzan on goian dago.

Asi dira eskillera-maillatan gora...

Pototo berba ta berba etenik gabe...

- Entzun, Pototo...

- Egon ixilik neuk kontua amaitu arte!

- Bañan...

- Zer baiña, gero! Ixo!

Oto gizarajoa beti mendeko.

Pototo berta ta berba, izketan... Baeukan etorria egun aretan...!

Bosgarren bizitzan, Oto larri:

- Aizu, Pototo, gauza bat bearrezkoa...

- Ixililik neuk bukatu arte!

Amargarrenean, Oto geroz eta larriago:

- Pototo, mesedez, entzun...

- Ixooo!

Amabosgarrenean eldu dira biak, izerditan arnasa artun eziñik:

- Zer eukan ainbeste presarekin?

- Zera, Pototo, lenengo bizitzan utzi dogula giltza.



---

# **EUSKAL LEGE-ZARRAK O.N.U.´REN ARGIAK ?**

---

Baliteke alan izatea. Euskalerria Mundu onen etorkizunean zaarrenetarikoa dalako eta gure Europa onetan zaarrena. Bere gizartearen ikas-bidetik, askatasunaren eskubideak neurri aundienean zainduta euki dabezenak guztien ardurazko ordeak bakoitzak eta danon artean zaindu daiguzan; bat! bera esan dabe, edo banakako gizon/emakume zar edo gazte izan arren alboratu barik, eta guzti ori beti ! JAINKOA´ri begira.

Bizi luze onetako ikas-ekintza orretan eta antziñatik gauza aundi bat neurrian zeaztu egin ebelako “NORTASUNA”ren itza nabarmentasun guztiaz agertu jakon. Itz onek bakar, atal-gabeko edo bakuntasunezko itxura baten agertzen bada be, beren berezko izaeran bera da Mundu onetako esangurea mugatzen dauan itzik ederrera, giza, gizarte eta gauza guztiak diran ezberdintasunezko maillatan izaerazko egokitasunagaz osotuta, bakoitzasunezko itxurapenak edo eginkizunetan daukien ordezkotza, itzez zeatz mugatzen daualako.

Nortasuna berezia da Mundu onen nai-ta naiezko bizitzan, arima bakoitza itxurazko gai-zorro baten azalean sartuta agertzen garalako. Ortik aurrera, bera da Munduko gai guztien eskubide-zorduna, berarekin eta gizarte guztiekin, gai onek daukazan LEGEA´k betetako. Orregaitik Euskalduna antziñatik konturatu zan JAINKOA´ren LEGEA´k ziralara bete bear ziranak gure bizitzaren epe laburrean.

Ortik, berez agertzen dana, bakotzaren ARDURA da, NORTASUNA´ren itz ederragaz neurtzen doguna.

Orregaitik gure baserrietan gaur arte beintzat, tokirik ez da egon izendaturik gabe, leize edo etxeko azken baztarretik asita, mendi eta ibaiak osotzen dabezan nabarmenezko berezitasun guztiakaz: nekazaritzarako lurak eta danetarako esku-artean ibili bear ziran tresneriak, landara, lore, belar, abere, egazti, narrastarien arteko suge-motak, bai giza´ren ezberdintasunak eta abar. Bakoitzaren izenean, gure bizitzarako daukiezan on edo txarrerako berezitasunak izen-itx orren izaeraren barruan ezaugarria emonda.

Ikas-bide onek, gizon/emakumeari berak! erakutsi eutson Mundu onen ezberdintasunezko giza, abere eta gai-guztien motak, osagarritzko ordezkartzaren ardura-pean sartuta dagozela elburu bat lortzeko, JAINKOA´k Beren LEGEA´ren bidez beartuta.

Orregaitik, Kromañoñ`eko leenengo Leinuetatik asita zaarren artean batzartu egin bear ziran, bizitzak, daukazan arazoak konpontzeko eta beren legeko erakutsien irakas-

penetik eredia artuta, eginkizunezko gauza guztietarako NORTASUNEZKO izenak on-artu eta jarraian ezarrita, etorkizunean danon ezaugarrian oituratu daitezcan.

Kromañoñ gizartearen ugaritasunagaz, leiñuaren ugaritasuna be sortu zan, baiña oitura eta izkuntz baten oiñarrituta.

Gaurko jakintsuak esaten dabe, Europa´ko izotz-urtzean, izotz-oreiñak (Reno) eta Mamutzar´en igesaldian edo atzerakada egitean euren atsegiñezko giroan egoteko, Euskal eiztariak eizan euren atzetik Europa guztitira zabaldu ziralara, orregaitik Europa´ko jendearen geneak % 75 Euskaldunal diralara eta beren baztar guztiko izkuntzetatik aurkitzen diralara Euskara´ren oiñarrizko itzak: Aran, Ibar, Ur eta abar asko.

Dana dala, gure arbasoak berezko ikas-bide orretatik: izkuntza, erligio, erriajakintza arlo guztietan eta izaerazko oituran, demokrazi aundi baten batzangotuta (globalizaciòn) agertu ziran bakoitzari berea emonda danon babesean, gure LEGE-ZARRAK adi-erazi egiten dauan lez. Nai-ta gaurko demokraziaren eta gure menperatzaille diran etsaiak euren erasoetan esaten daben lez: “Euskaldunak sekula ez genduala laterrizko giza-mailla bat antolatatu” eurak daukien lez. Orduko bizi denboretatik ez zan izan giza-mailako antolamendu naikoa ulermeneko batzangotasun bakezko eta askatasunezko demokrazi on bategaz gozatzea?

Baiña etorri ziran Menperatzaille-Erromatarrak bai! JAINKOA´ren LEGEA´k aintzat artu barik, eta euren sasi-jainkotasunezko legeak ezarri gure ebezan.

Euskaldunak ortik aurrera gabiltz borrokan, euki genduzan eta daukaguzan gure oituran askatasunezko demokraziaren LEGE-ZARRA´k babesteko. Jarraian ikusiko doguna, edestiak okerrean marratzen dabillen oso zabaleko bide-biribilla, leen ezaupenezko demokraziaren zeaztasunetan osterara be ezartzeko.

Euskaldunak ikusi ebenean erromatarrak zelako indarra ekarren eta nolako kalteak egin ebezan gure erriaren biotz-erditik urrun edo Auñamendiaren babeseko bizkarrretik urrun inguru-aldean egon ziran Euskal gizeli edo leiñuakaz, eurakaz bat eginda geratu ziran.

Euskaldunak erromatarren porrotaren ostean, osterara eta laster berrezkuratu eben euren erri-gorputzaren izatasun guztia, baiña gauza bi geratu ziran Euskalerritari eta erri-berezi guztiari kalte asko egingo dautsozenak: bata, euren izkuntza edo latiña eta bestea, Kristautasunezko

erlijioaren eleiz-gizonak eta iraspenna bera be, menperatzaile burutakizun orregaz lotuta geratu zalako Konstantino´k 325´an Nizea´ko Kontzilioa batu ebanetik aurrera, eleizari ainbeste indar emonda.

Batera kontuan euki bear dana, Kristautasunezko irakatsiak alboratuta, kristau erlijiozko eleizak latineguz batera joan dirala erri-berezien aurka, onein izkuntzak ta Nortasunak kontuan arturik-gabe, danak kristautasunezko batzango baten batuta, gaur egunean Ameriketan sortzen diran alderdi-galgarri oneik lez eta beti egon dala jaso ziran erregetzaren erispen guztien gainetik.

Mundu onen gizartea..., antolamendu on baten billa antziñatik dabillelako? Egia da, eta kristau eredu ori gura eben, baiña konturatu bear garana da, beti zikintzen dauana, sasi-jainkotasunak gainean ezartzen dauskuezanean izaten dala.

Goiko JAINKOA sinisten dogulako ?

Orregaitik gabiz alde batetik bestera joanda buruak apurtzen, Mundu´ko gizartearen NORTASUNETAN ainbeste naaskeri, oiñaze, min, neke eta gaur diran barregarritzko ekintzak lotsarik-gabe egiten.

Ez gara gauza izango..., egunen baten Izadi onek daukazan LEGEA´k onartzeko? BEREN LEGEAK DIRA!!.

Godomenperatzaileak agertu ziran berriz Euskal-Erria menperatu naian eta laster konturatu ziran erdi ugarte au euren agindupean gure ba eben euki, erlijioagaz bat eginda izan bear zala. Orregaitik eleiz-gizonak errege Godoari keñua eginda edo alderantziz izan, oneik ekarten eban Arriano´ren kristautasuna 587´an Rekaredo´k bertan alboratuta 589´an katolikotasuna besarkatu eben Toledo´ko eleiz-batzarrerako deituta.

Ortik aurrera indartzen asi zan euren erregetza, baiña batez be euren ustez Toledo´ko eleiz-batzar inguruan menperatzaile eleiztarren artean alako ameskeriko naikunde antzeko bat euren gogakizunetan geratu zana, edestian andik ona minbizi baten antzera sartuko dana European eta batez be erdi-ugarte onetan eraikiten diran erakunde guztietan, nai erregatzaren, guda-gizonena ez dan jaurkintzatan.

Godoen porrotaren ostetik eta mairutarrak indar geieanean egon zirala Pelayo´k 718´ko urtean Asturias´eko erreñua eraiki eban 910´ean Leon´eko erreñuan geratuko zana, eta Euskaldunak Banu-Qasi sendi mozarabearen laguntzagaz 824´an Aritza´tar iñigo´rekin Napar-erregetza sortu ebenean.

Eleiztarrak, onartu eben Euskera eta latina´ren bitartetik agertu zan naaste borrazteko izkuntz baragarri bat gero “latinkume” (romance) deituko jakonari eta beranduago Gaztelera.

Eta gure Napar-erregetzan, gero Gernikako batzarretan sortu zana gertatuko zan, erregearen ordezkioak ez ebelako Euskeraz jakin eta indarkeriz erdera ezarri zan.

Napar-erreñuan ez zan sartuko indarkeriz, baiña bai eleiztarrak euki eben eragipenagaitik, jaurkintza eta eleiza oso lotuta egon ziralako, bai erri gainetik aldakuntzazko goiko mailla ezberdiña erakusteko on artu zalako. Orregaitik gure berezko Euskal izkuntza Santxo Jakintsuak “LINGUA NAVARRORUN” izendatuta be, Euskeraz sekula ez zan idatzi gorte edo erregetzetan aolku edo argibide bat bera esanda be.

Gure erregetza guztian Austria´tar II Karlos il arte beti jaurri edo eraendu gara gure arauzko legedia batzar nagusietan eraikita, baiña 1.700´ean V´garren Felipe Borboia erregetzan ezarri zanetik eleiztarren laguntzagaz guztiko agintaritzaz gura eben Europa guztian antzekoa izanda, eta ortik asi ziran iru gauza miragarriak agertzen, parean joan ziranak: bata, erregetzaren malda-bera egia eurenaganatzen asi ziralako eta euren al-osokerien bitartez sasi-jainkotzara eldu ziralako, ainbat zapalkuntza eginda.

Bestea, Espainol eleiz-gizonak erregetzaren astokerizko zapalkuntzari jaramon edo kasu egin barik, euren al-osokerizko siniskaien bitartez, alegin guztiaz eutsi gure izan dauzsolako berezitasunaren aurkako burutakizun oneri, eurak eta eleizak euki dauan sinismena ezerezean itzita.

Irugarrena, erritarrak 1.800 urtetik aurrerantza Arana´tar Sabino´ren irrintziari ezker eta ikas-bidean beste aurrerakuntzako jendekuntza batean sartu zalako, eta batez egiaren osotasuna beteten daben ezaugarriak erreztuten joan diralako, gaurko egunean argi ikusten da berezitasunaren oiñarria berreskuratu egin bear dogula Mundu onen eta gizaren babeserako, danok ardurazko ordezkartizan sartzen gaituelako.

1.789´an Frantzi´ko iraulpenetik aurrera ainbat borroka egon dira Europa´n bata bestea baiño gogorragoak, menperatzaileen eritzian ordezkio al-osotasuna berezitasunaren ordezkio euren eskuetan eukiteko; eta erri-bereziaz Mundu onen legedia zaintzen, berezko nortasun biotz baten ez diralako ulertzen zapalkuntza oneik.

Danak borroka latzak izan ziran, eta izkilluen tresneria egokitzen joan ziran 1.914-1.918´ko saio aundira eldu arte.

Ikaragarritzko triskantzak eginda gero, ez ziran ados geratu irabazlerik ez zalako argi geratu. Eta ostera be asi ziran izkillu eta legeak egokitzen askeneko ta ikaragarritzko triskantza egin arte 1.940-1.945´eko borroka nagusiaz.

Or bai agertu zala irabazlea, baiña baleiteke iñork ez ulertzea zetan ibili ziran, erri eta gizartearen eskubideak leen eta edozein gauzaren gainetik zaindu egin bear zirala esan eta sinatu egin ebelako, baiña ezkerreko alkargotik asita erri berezitasunezkoak on artu barik, erri-arteko politikan ezarri dira. Danak gurako dabe mozkin bardiña?

Eleiza be, borroka guztietan menperatzailearen alegiñetan beti ibili da, Irak borrokan izan ezik, baiña laster argi geratu da, Toledo´ko eleiz-batzarrak maitetasun aundiagoan daukozela Munduko berezitasun guztiak Euskadi edo Euskalerria artean dana baiño.

Lasa eta Apalategi´tar Jose´k, berak argitaratutako liburuan “EL PUEBLO VASCO DEMOKRACIA TESTIGO DE EUROPA”, esaten dauan antzera: “bizitzarako legean, edozein denbora gaurko denborak baiño obiagoak izan dirala” enoa esaten, baiña bai asieraren etorkizunezko millaka urte diran denbora areik, gaurkoak baiño obiagoak izan bear zirala bai.

Eta nun agertzen garan erabagia artu bear dan ordura. Izadi onen gizartea eta batez be Mendebal onetan, noren eskuetan geratuko diran Mundu onen ordezeko ardurak. Munduaren aberastasunezko banaketetan izugarritzko ezberdintasunak ordezkatzeko gabiltzelako, gizarte guztien iru laurenak txirotasun edo ustel bizitzatik eriotzara bialduta, bai bera maldan bera doalako ikaragarritzko ariñeketa baten eta fisikoki naaste geiegi asi garalako moltzotuten, beti borrokan ezindalako ibili, gaurko jakintzak ez dauelako iñundik iñora on-artzen.

Munduko bigarren borroka nagusiaren ostetik, zorioenez, arrazoiari edo DEMOKRAZIA´ri keiñu galantak egin jakozan erri guztien alkargo bidez, O.N.U. (erri guztien arteko antolamendu nagusia) izan gure dauan iraspenagaz babesteko, baiña Mendebal onetan menperatzaile nagusien artean norkerietan asi ziralako, laster aztu ziran ariñagoko bioz-belzkeriarekin eta bide orretatik laster eldu gara ostera be ormaren aurka buruagaz jotera.

Leenengo, ibili ezkerrean daukaguzan atomo-leerkaiekaz...., danok goazelako JAINKOA´rengana ganora barik.

Bigarren, erri ta gizartearen ardurak diran eskubideordezkozak menperatzaile-arrazoiakaz zapaltzen asten ba dira gaurko lez...., millaka gizon/emakume zutituko dira NORTASUNAREN arrazoiak babesteko.

Orduan..., norena dala esan bear da gaur dabillen ikarabide (terrorismo) au ?.

Iztegiak, argien salatzen dauana: “ikarabidezko-azpi-raztaillearen legea´ri”. Eta lege guzti orreik gaur, espataren bidez ezarrita eskubide-bako Laterri menperatzaile-tan dagoz. Orduan nor da.... Izutzaille (terrorista) ori?. Argi dago.

### ONDORIOA:

Edestitik zear ibili dogun ikus-oroipen onek, leenen erakusten dauskuna, agintaritzagaz burutu diran gizakiak izan barik asto-utsak izan eta dirala esan bear da, beti sasi-jainkotasunera jo dabelako.

Orregaitik, len esan doten lez aldaketako ordura eldu garala egia da, gizaren arimak gaur, ezin dabelako danon begibistan doiezan ainbeste maltzurrezko-indarkeri giza-barnean bakez eroan, NOR-BERA´gandik asita danon baitan kalte aundiak egiten giza-lez dauskuzalako.

Tirabira asko izan bear ditugu arrazoiak orekan ezartze-ko, batez be, xautzailletasunaren amets-aberats edo auke-rakerizko bizi baten bete betean sartuta gagozelako.

Mundu guztian DEMOKRAZIA eskatzen dogu eta eskaera ori, bai bidea be ondo ulertuta daukagu. Ez Amerikar, Ingeles eta Espainol menperatzaileak esaten dauan lez demokrazi aundi baten bizi garela, len eta gaurko zapalkuntzak bardiñak diralako, eta gaurko antolamenduari erdi-inguruan itzuli egin bear jakolako.

Baiña merezi dau, ordezeko arduraren bide ori sarigarrria dalako, JAINKO semearen edo arrazoizko gizaren izena irabazten dogulako.

### O.N.U.:

O.N.U´ren babesa eskatzeaz gain, erri guztien arteko antolamendu nagusia eskatzen dogu, demokrazi aundi baten ezarri gaitez, al izateko danon ardurazko zoreskubideak bete daitez, Mundu onen gai-fisikotik asita.

Begitu nundik nora itzuli bear garan, erdi-mendean itxitako KROMAÑON berez batzangotasunezko ikas-bidera. Ikas-bide ortatik urtenda dan guztia arrazoitik asita ganora barik naastu egin dogulako, eta bide onetatik jarraian iraun egiten badogu JAINKOA´ren izadi au BERE itxura barik geratuko dalako.

### EUSKAL LEGE-ZARRAK:

Eta Mendebal onetan zein da NORTASUNEZKO GIZA areik millaka urteko ikasketak bizi egin zituena?. Emen EUSKALERRIA beren LEGE-ZAARRAKAZ ! zalantzarik gabe. Betiko beren bizitzan babestu dabezanak izatasun guztiaz, berentzat eta emen bizi diranentzat JAINKOA´ri begira eta askatasunezko ametsean sinismen ikurragaz eginda dagozelako.

Orregaitik daukaz EUSKALERRIAK ainbeste etsai ?. Baleiteke, menperatzaile guztiak diralako, eurenak ez diran eskubideko jaurkintzak itzi bear daben erri-berezitasunezko eskuetan (asko dira), O.N.U´ren antolamendu baten sartzen ba-gara. Eta sartu bear gara, gaur egunean berezizko-arrazoiak garrazika eskatzen daualako.

EUSKALERRIA.... EMEN DAGO!! IZAR AUNDI BAT LEZ.

ETA EZ DOGU ARTU BEAR IZKILLURIK ASKATASUNA LORTZEKO, BATEZ BE, DEMOKRAZIAREN ARRAZOI-BIDEAK ARTUTA DAGOZELAKO.

BENETAKO JAKINTZA BEAR DOGU GURE IZAERAZKO “LEGE-ZAARRETAN” SINISMENA ZENDOTZEKO, ETA BERAK EMOTEN DAUAN INDARRAGAZ, “DANON ASKATASUNA LORTZEKO”.

IPARAGIRRE´GAZ DANOK ABESTU DAIGUN “GERNIKA´KO ARBOLA SANTUA “.

ATUTXA´tar PAUL  
ZORNOTZA´n 2.003´an ORRILLA´ren 20´an

**Prestakuntza programak**

**Alkarbide**

**Euskara teknologia berrietan**

**Euskararen sustapena enpresan**

**Sentsibilizazio kanpainak**

**Euskararen sustapena udaletan**

**Hizkuntz normalizazioa**

**Elkartentzako laguntza**

Euskara da gure konpromisoa. Hori dela eta, legegintzaldiaren hasieran, Euskara Sustatzeko Zuzendaritza sortu zen, euskararen erabilera sustatzeko eta bizkaitarrei euskaraz bizitzeko aukera bermatzeko:

**Euskara sustatuz udaletan.** Hamaikatxo diru-laguntza bideratu ditugu udaletara, euskararen aldeko jarduerak bultzatzeko. Guztira 472 proiektu gauzatu dira Bizkaiko 100 udaletan.

**Euskararen erabilera sustatuz enpresan.** 25etik gora proiektu gauzatu ditugu, euskara gizaratearen eremu guztietara hedatzeko, bai eta lan mundura ere.

**Elkarteei lagunduz.** Euskararen alde ari diren elkarten hainbat proiektu bultzatu ditugu, 250etik gora; eta euskarazko aldizkariei ere laguntza eman diegu.

**Sentsibilizazio kanpainen bidez.** Lau kanpaina egin dira telebistan, prentsan eta irratian, jendea euskararen

arazo espezifikoek sentsibilizatzeko eta euskararen prestigio soziala handitzeko.

**Prestakuntzarako laguntzak emanez.** 200 beka eta laguntza eman dira, unibertsitate mailako euskarazko ikastaroak egiteko.

**Euskara teknologia berrietan sartuz.** Etorkizunari begira, ezinbestekoa delako euskara eta teknologia berriak uztartzea.

**Euskararen normalizazioan aurrera eginez.** Herritarren eta administrazio publikoen arteko harremanetan euskaraz egiteko aukera bermatzeko.

**Alkarbide sortuz.** Bizkaiko udal eta mankomunitateetako euskara zerbitzuen bilgunea, ahaleginak koordinatu eta baterako ekintzak sustatzeko

**...Eta beste jarduera asko martxan jarritz...** Izan ere, legealdi honetan 25 milioi euro baino gehiago erabili dira euskalgintzan, 500.000 bizkaitarren mesederako.

Euskararen alde egunero aritzea: horixe dugu bidea.

**1999-2003**

# Lau urte euskalgintzan

 Bizkaia



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Kultura Saila

Diputación Foral  
de Bizkaia  
Departamento de Cultura



# BBK

**EUSKERAZALEAK**

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 Euro)

# txartelak



## **BBK txartelek opariak gordetzen dituzte**

Ordaindu erosketak edozein  
BBK txartelekin eta, hilero,  
itzelezko opariak irabazi ahal  
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

**bbk<sup>2</sup>**